



PRENTSA DOSIERRA



422
Plaza



235
Egoitzan



51
Etxebizitza
komunitarioetan



80
Eguneko
zentroetan



56
Apartamentuetan



404
Pertsona
artatuak



260
Profesional

ZORROAGA BEGIRADA BATEAN

Zorroaga Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua da, Donostiako eta Gipuzkoako adinekoen arretan espezializatua.

Hainbat arreta-aukera eskaintzen ditu: mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza, adineko autonomoentzako etxebizitza komunitarioak, autonomoentzako tutoretzapeko apartamentuak eta eguneko zentroak. Espazio fisiko desberdinak dira, eta arreta-ekipo bereziak dituzte, erabiltzaile bakoitzaren inguruabarrak eta lehentasunak kontuan hartzen dituen banakako zerbitzua eskaintzeko.

Zorroagako talde profesionalak Pertsonan Oinarritutako Arreta Integraleko (AICP) eredua garatzen du, bereizketan eta norbanakoaren autonomiarekiko errespetuan oinarritutako ikuspegi bat proposatuz. Horrela, Zorroaga erabiltzaileentzako eta haien familientzako arreta- eta topaketa-gune bihurtzen da.

Zorroaga Fundazioaren erronka erabiltzaileak, haien familiak eta haiekin lan egiten dutenak zaintzen jarraitzea da, beren bizi-proiektua garatzeko zainketak eta laguntzak emanez. Horretarako, lankidetzahitzarmenak ditu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako Udalarekin.





ZAHARTZE DUINA ETA AKTIBOA

Zahartzea eta bizi-itxaropenaren gorakada dira gure inguruneko bilakaera soziala zehazten ari diren bi faktore, eta datozen urteetan are nabarmenago egiten jarraituko dute.

Aldaketa sozialak eta pertsonen behar berriei erantzutea dira Zorroagak bere 300 urte baino gehiagoko historian erantzun dituen erronkak. Eta hala jarraitzen du, ikuspegi aurreratzailerik, instalazioak, zerbitzuak eta ekipamenduak hobetzeko eta langile espezializatuak izaten jarraitzeko inbertsioak eginez.

OMEk honela definitzen du zahartze aktiboa: "zahartu ahala pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko osasun, parte-hartze eta segurtasuneko aukerak optimizatzen diren prozesua". Beraz, zahartze aktiboa etengabeko prozesua da gure bizitzan zehar, eta aukera ematen digu pertsonen gure autonomia, funtzio kognitiboak eta harreman sozialak denbora luzeagoan mantentzeko, gure bizi-kalitatea hobetuz.

ZENTRO ESPEZIALIZATUA ETA HIRIRA IREKIA

Zorroagak estimulazio fisikoko, kognitiboko eta gizarte-harremanak sustatzeko programa espezifikoak eskaintzen dizkie bere zerbitzuen erabiltzaileei, baita aisialdiko eta entretenimenduko hainbat jarduera ere, komunitatearekin harreman estua izanez.

Horretarako, urtero, Zorroagak jarduera esanguratsuen, zirrargarrien eta lotesleen programa zabala eskeitzen du egoiliarrentzat eta senideentzat. Hori guztia komunitatearekin eta ingurunearekin harreman estuan, ikastetxeekin, kultur elkarteekin eta kirol elkarteekin batera jarduerak antolatuz.

Testuinguru horretan, besteak beste, Zorroagan operatentseguak, belaunaldien arteko krosa, "Cimasub" Itsaspeko Zinemaren Jaialdiaren proiektzioak, Bizikletaz Adinik taldearen laguntzarekin irteerak eta ibilaldiak eta San Sebastian eguneko danborrada.



ZORROAGA BARRUTIK

Fundazioak bi kokaleku ditu hirian, Zorroaga Gainean eta Arrasate kalean, Donostiako erdigunean.

Instalazio nagusiak **Zorroaga Gainean** daude, 55.000 metro koadroko finka batean, eta horietatik 25.000 lorategiak dira. Hemen eskaitzen dira:

- 71 plaza: adineko autonomoentzako apartamentu eta etxebizitza komunitarioetan
- 235 plaza: mendekotasuna duten adinekoentzako 4 egoitza-unitatetan
- 50 plaza: mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroan



2023ko martxoaz geroztik, Zorroagak kokapen berria du Donostiako erdigunean, **Arrasate kaleko 51.** zenbakian, zaharberritutako eraikin batean, Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuak handitzeko.

- 30 plaza, mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroan
- 36 plaza, adineko autonomoentzako apartamentuetan

ZERBITZUAK

- Ostatua eta mantenua
- Ebaluazio geriatriko global jarraitua eta zainketa-plana
- Zainketa pertsonalak
- Osasun-arreta
- Erabiltzaileentzako eta familientzako gizarte-arreta
- Estimulazio- eta animazio-jarduerak
- Laguntza psikologikoa
- Animazio soziokulturala eta sozializazioa
- Kafetegia, ile-apaindegia, podologia
- Komunitatearekiko harremanak
- Zerbitzu erlijioso katolikoa

HISTORIA PITIN BAT

Zorroagaren historia duela 310 urte hasi zen Donostian, hiritar talde batek gaur egun Zorroaga Fundazioa denaren hastapena eratu zuenean. Hiriko Udalak eskatuta, 1714ko maiatzaren 5ean, Felipe V. erregeak Errege Zedula bat sinatu zuen Donostiako Errukiaren Errege Etxearen Patronatua sortzeko.

Behartsuak artatzeko ongintzako laguntza-erakunde gisa sortu zen, eta San Martin auzoan zegoen.

Bere historia barru-barrutik kokatzen da Donostia hiriaren barruan, eta hiri horren bilakaeran beti egon da presente izen desberdinekin (*Beneficiencia de San Sebastián, Junta de Patronato de la Casa de Miericorida eta Hospital de San Antonio Abad*), hainbat kokalekutan eta zerbitzu-eduki desberdinekin (asiloa, ospitale orokorra, tuberkulosiaren aurkako ospitalea, haurren egoitza, haurrentzako etxebizitza babestuak).

1899an Donostiako Udalak Zorroaga Patronatua sortu zuen eta 1906an Zorroaga baserriaren lurak erosi zituen eta bertan Victoria Erregina Asiloa eraiki zen 1910ean.

Lur horien gainean dago gaur egun Zorroaga Fundazioaren egoitza nagusia. Lorategiz inguratutako naturgunea, non adinekoei laguntza eta arreta emateko zerbitzuak hartzen dituzten eraikinak dauden.

Duela 310 urte sortu zenetik, pertsona askok neurri batean edo bestean lagundu dute une bakoitzeko gizarte-premiei erantzuteko ahalegin berean. Gaur egun, Zorroaga Fundazioa da lan kolektibo horren guztiaren oinarria.



ELIZA

Zorroagako instalazioak osatzen dituzten eraikin nabarmenetako bat da eliza. Hiriko toki askotatik ikus daiteke. Eragin anglonormandiarra duen eraikin neogotikoa da, eta inauguratu egin zen. 1910ean.

Ondare-balio handiko eraikina da, eta fatxadak erabat hareharrizko eta kareharrizko harlanduz eginda daude. Barrualdean, estalkia egurrezkoa da, gargolez errematatua, eta hormek beirate ugari dituzte, multzo arkitektonikoari argitasun handia eta kolorea ematen diotenak.

Cavaillé-Coll (Paris) organo bat du, 1870ean eraikia eta 1910ean Erruki-etxearen inaugurazioa zela eta instalatua. Ekitaldi horretan Orfeo Donostiarrak parte hartu zuen, Udal Orkestra eta Bandarekin batera.



Gaur egun, espazio berezi honetan mota desberdinetako ekitaldiak ospatzen dira, ez bakarrik erlijiosoak. Batzuk aipatzearren: *Musika Hamabostaldia*, *Musika Sakratuaren Zikloa*, *Udaberriko kontzertuak*, abesbatzen emanaldiak, jardunaldiak...

